

# **ADMINISTRAZIO-AGIRIAK LUZATZEAGATIKO TASA ARAUTZEN DUEN ZERGA ORDENANTZA. 2019. URTEA**

## **I.-OINARRIA ETA IZAERA**

Lehen artikulua. Konstituzioaren 133.2 eta 142. art.etan eta Toki Araubidearen Oinarririk arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 106. art.ak emandako ahalmenak erabiliz eta Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan xedatutakoarekin bat etorriz, Udalak Zerga Ordenantza honek eraentzen duen administrazio-agiriak luzatzeari buruzko Tasa ezartzen du; Ordenantzaren arauak arestian aipatu Foru Arauak agindutakoari erantzungo diote.

## **II.-ZERGA EGITATEA**

2. artikulua.-1.-Tasaren zerga egitatea Administrazioak edo Udal Agintariek luzatzen dituzten agiri eta espedienteen tramitazioaren zioz gauzatutako eta alderdiak eskatutako administrazio jarduera izango da.

2.-Ondore horietarako, alderdiak eskatuta tramitatutakotzat hartuko dira: norbanakoak arazitako edozein administrazio agiri edo norbanakoaren onurarako den edozein agiri, baita interesatuak berariaz eskabiderik egin ez duenean ere.

## **III.-SUBJEKTU PASIBOA**

3. artikulua.- Zergadun subjektu pasiboak dira kasuan kasuko agiri edo espedienteak tramitatzeko eskatzen edo arazten dituzten pertsona fisiko eta juridikoak eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorrek aipatzen dituen erakundeak.

## **IV.-ERANTZULEAK**

4. artikulua.-1.- Subjektu pasiboaren zergak ordaintzeko betebeharreari solidario gisa erantzungo dizkiete Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 41. art.ak aipatzen dituzten pertsona fisiko eta juridikoak.

2.- Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 42. artikuluan aipatzen diren pertsona edo erakundeak arduradun subsidiarioak izango dira.

## **V.-SALBUESPENAK ETA ZERGA-HOBARIAK**

5. artikulua.-1) Tasa hori ez dute izango Gizarte Larrialdietako aldizkakoak ez diren laguntza ekonomikoak edo Oinarritzko errenta diru sarrera eskatzen dituzten pertsonak.

2) Era berean, ez dute tasa hori izango Erakunde Ofizial guztiek.

6. artikulua.1- Tramitatu beharreko agiri edo espedienteen izaeraren arabera adierazitako kopuru finko batek zehaztuko du zerga kuota, ondorengo art.ra bildurik dagoen tarifarekin bat etorritz.

2.- Tarifaren kuota, auzialdi bakoitzean, kasuan kasuko agiri edo espedientearen tramitazio osoarena da, tramitazioaren hasieratik suntsiarazpena arte baitalortutako akordioaren ziurtagiria eta jakinarazpena.

3.- Tasaren kuotan hurrengo hobariak jasotzeko eskubidea izango dute familia ugariko titularren izaera duten subjektu pasiboek, aipatutako izaera duten bitartean, eta bere ohiko etxebizitzaren katastroko balioari kasu eginez:

-Katastroko balioaren 36.000 euro arte: hobariaren %50a.

- Katastroko balioaren 36.000 eta 50.000 euro bitartean: hobariaren %25a.

Hobaria subjektu pasiboak eskatu beharko du, hurrengo agiriak aurkeztuta:

-Hobariaren eskabidearen idazkia.

- Bizkaiko Foru Aldundiak emandako familia ugariko titulua.

7. artikulua.- Aurreko artikulua aipatzen duen tarifa honako epigrafeetan egituratzen da:

## **TARIFA**

1.- Udalean dauden agirien ziurtagiriak ematea: 0,15 euro orri bakoitzeko.

2.- Udaletxean dauden agirien fotokopia dilijentziadunak: 0,10 euro orri bakoitzeko.

3 .- A4 Fotokopiak-aurpegi bat 0,10 euro

4 .- A4 Fotokopiak-bi aurpegi 0,15 euro

5 .- A3 Fotokopiak- aurpegi bat 0,15 euro

6 .- A3 Fotokopiak-bi aurpegi 0,15 euro

7 .- Ordenantza fotokopiak A4 (Orria) 0,10 euro

8 .- Planoen kopiagintza:

Birsor daitekeen paperean	14,00 euro
Kopia paperean	3,20 euro
9.- Ahalen askiespena 10,80 euro bakoitza.	
10.- Disketeen luzapena 1,10 euro.	
11.- Posta bidez agiriak bidaltzea	
Arrunta	0,50 euro
Ziurtatua	2,30 euro
12.- Mezularitza bidez agiriak bidaltzea	
Hirilur arloa	7,80 euro
Bilbo	12,30 euro
Gainontzean	78,40 euro
13.- Fax zerbitzua orrialde bakoitzeko	
Metropolialdean	2,80 euro
Nazio mailan	4,50 euro
Europako Batasun Ekonomikoan	7,80 euro
Gainontzean	15,70 euro
14.- Udalaren Plan Orokorra eta Topografia Orokorra daukan C.D. ROMa 21,30 euro.	
15.- Udaltzaingoak esku hartu duen istripuen atestatuak erreproduzitzea. 14,00 euro.	
16.- Zehapeneko espedienteak osoro berreginda. Fotokopiaren prezioa fotokopia kopuruarekin aterako da.	
17.- Azterketa eskubideengatik.	
a) A taldean sartzeko:	2,80 euro
b) B taldean sartzeko:	2,20 euro

c) C taldean sartzeko:	1,70 euro
d) D taldean sartzeko:	0,90 euro
e) E taldean sartzeko:	0,90 euro

## **VI.-SORTZAPENA**

8. artikulua.- 1.- Tasa sortu eta zergak ordaintzeko betebeharra jaioko da zergapeko agiri eta espedienteen tramitazioari hasiera ematen dion eskabidea aurkezten denean.

2.- Bigarren artikuluko 2. zenbakiak aipatzen dituen kasuetan, norberaren arioz udal jarduera eragiten duten inguruabarrak ematen direnean gertatuko da sortzapena edo jarduera interesatuak eskatu gabe hasi arren ere interesatuarentzat onuragarria denean.

3.-Beti ere, ordainketa aurretiaz eskatuko da.

## **VII.-AITORPENA ETA SARRERA**

9.1 artikulua.- Tasa autolikidazio araubidean ordaindu behar da. Dokumentua edo espedientea tramitatzeko eskabide-idazkiarekin batera, ordainketaren ziurtagiria erantsi behar da. Eskabide-idazkirik ez badago edo eskaera ez bada beren beregi egin, ziurtagiria dokumentuari edo espedienteari erantsiko zaio.

2.- Ordainketaren ziurtagiria ez dakarten idazkiak behin-behinean onartuko dira, baina ezin izango dira bideratu harik eta ziurtagiria aurkezten den arte. Horretarako, interesatuari agindeia egingo zaio, hamar eguneko epean, kuotak ordain ditzan. Ordainketa ez badu epe barruan egiten, idazkiak aurkeztu ez dituela joko da, eta eskaera artxibatu egingo da.

3.- Udal Administrazioak auzi mota guztietarako Epaitegi edo Auzitegien arioz luzatzen dituen ziurtagiri edo agiriak ez dira emango ezta bidaliko ere aurretiaz zerga kuota odaindu ez bada.

## **IX.-URRATZEAK ETA ZEHAPENAK**

10. artikulua.- Zergen gaineko urratzeen kalifikazioari dagokienez eta kasuan kasuko zehapenei dagokienez, Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 183 eta ondorengo art.etan xedatutakoari lotuko zaio.

## **VIII.-AZKEN XEDAPENA**

Ordenantzaren oraingo testua 1989ko irailaren 29ko Udalaren Osoko Bilkurak onartu zuen eta 1990eko azaroaren 30eko, 1991ko abenduaren 20ko, 1992ko

azaroaren 27ko, 1994ko azaroaren 25eko, 1996ko apirilaren 29ko, 1997ko urtarrilaren 31ko, 1997ko abenduaren 19ko, eta 1998ko abenduaren 18ko, 2001eko irailaren 28ko, 2003ko azaroaren 28ko, 2004ko azaroaren 26ko, 2005eko azaroaren 25eko, 2006ko abenduaren 22an, 2015eko abenduaren 23an, osoko bilkuren erabakiz aldarazia izan zen; Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta bere argitalpenaren ondoko egunean indarrean sartuko da, momentu horretatik aurrera aplikatuta eta indarrean iraungo du bere aldarazpena edo indargabeketa erabaki arte.